



Herritar ugari bildu ziren iazko abenduan, elurrari aurre eginez, Egunkariaren aurkako epaiketaren kontra zegoela adierazteko.

Egunkarikoak libre

■ Fernando Furundarenak azaldu digunez orain frogatu da Egunkariaren itxiera inkonstituzionala izan zela.

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga Egunkaria-ko auzipetuak libre utzi ditu Audiencia Naizionalak euskaraz argitaratzen zen egunkaria itxi eta zappi urtera eman duten epaian. Fernando Furundarena Egunkariaren auzi ekonomikoa auzipetua dagoen lasarteoriatarak adierazi digu epaia garrantzitsua dela, ez dagoela ETA eta Egunkariaren arteko loturarik, lasaia dagoela, baina argi frogatu dela itxiera inkonstituzionala izan zela. •

Markel Olano eta Eneko Goia Kultur Etxean

Markel Olano diputatu nagusia eta Eneko Goia Bide Azpiegituretako diputatua Manuel Lekuona kultur etxean izan ziren atzo arratsaldean, apirilaren 15ean, Lasarte-Oriako herritarrek edota elkarte-erakundeetako ordezkariak egindako galderei erantzuten. *Foru Aldundia Zure Herrian* ekimena Lasarte-Oriara iritsi zen beraz atzo. Hainbat gaietaz aritu zirenez, asteleheneko Txintxarri luze eta zabalago jorratuko ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak esandakoak. •



Hasieran, Markel Olanok eta Eneko Goiak Foru Aldundiak gure herrialdean egin dituen proiektuetaz hitz egin zuten.

GIZARTEA /3

Jardunaldi Internazionalistak azken txanpan sartu dira

EUSKARA /3

II. Udaltop jardunaldiak egingo dira datorren astean

KULTURA /5

Ane Labakak Hernandorena saria irabazi du

Salesianos Urnieta Salesiarrak
BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

Grafikagintza, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Artes Gráficas, Mecánica, Electricidad, Electrónica

zatoz ven

giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...



ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

apirilak 24 - 10:00
24 de abril - 10:00

www.salesianosurnieta.com



Neure kabuz



Hitza

Hitza da gure komunikabide oinarrikoena. Hitza da gizakiok egiten gaituena, gure arteko harremanak ahalbidetzen dituen eta gure iritzia emateko gai egiten gaituena. Adibide moduan, euskarazko hitza da, kasu honetan, kontatu nahi dizuedana zuei helarazteko nire baliabide, nire tresna.

Maite duzun pertsona baten hitz soil bat izan daiteke eguna poztu dakizukena; eta aldi berean, gehien gorroto duzunak ere hiztegi-ko partikula txiki horren bidez egin diezazuke min gehien.

Hiztegi kontuetaz mintzo naiz, beraz, gaurkoan. Nahiz, gizaki izateko, jakin badakigun, hitz hauek modu egokian erabili beharra dagoela, orden baten arabera, koherentzia batekin,... Azken egun hauetan irakurri dudanak erakarri du nire arreta hala ere: koherentzia osoz erabiliriko hitzak ere, euskarazko hitzak, ezegokiak, legez kanpokoak izan omen daitezke. Hitzak debekatuak eta isilaraziak izan omen daitezke, nahiz ni, ziur naizen, nonbaiten hauek nahi dugun moduan erabiltzeko eskubidea bermaturik dugula irakurri izanaz. Adierazpen askatasuna deitzen zioten. Askatasuna. Hitza hau ere. Baina debekatu. Arriskutsua.

Hona hemen nire gaurko gogoeta. Noren hitza da zilegi gure gizartearen beste batean isilarazteko? Noren hitza da guztiz egiazko, familia osoak sufriarazteko? Nik badut nire iritzia, eta beste baliabiderik ezean, hau ere hitzez adieraziko dut: Egun-karia aurrera!

Taxdo Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Joserra eta Carlos
Zorionak bikote! Primeran pasa zuen egunean! Jalguneko lagun partetik.



Unai
Zorionak guapo! Txokolatetzko 5 muxu handi etxeko partetik!



Jon
Zorionak Jon, oso ondo pasa eta jarraitu hain jatorra! Familiaren partetik.



Daniel
Bost muxu handiak aita eta familiaren partetik.



Maialen
Zorionak maitia zure 3. urtebetetzean ama, aita eta Markelen partetik. Muxu handi bat.



Ainara
Zorionak sorgintxo! Ondo pasa zure 6. urtebetetzean, muxu haundi bat etxeko partetik!



Yolanda
Zorionak familiaren partetik.



Maria
Zorionak printsesa! Aita, ama, Julen eta familiaren partetik.



Lide
15!! Zorionak eta urte askotarako! Beñat, Jone eta gurasoen partetik.



Laura
Zorionak zure urtebetetzean! Bere ahizpa Lucia, aiton amon eta gurasoen partetik!



Hugo
Zorionak zure hirugarren urtebetetzean! Aiton amon eta osaba izeben partetik!



Olaia
Zorionak sorgina!! Ondo pasa eta 3 muxu pottolo familiaren partetik!



Nagore
Zorionak guapo! Muxu asko eta ondo pasa bihar!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Telefonoa 676 910 566.

- Pisua salgai Lasarte-Orian. 4 gela, komuna, sukaldea, egongela eta ganbara ditu. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Prezio interesgarria. Tel.: 664 668 652.

- Lasarte-Orian etxebizitza salgai, 5 gela, sukaldea eta komuna ditu. Eguzkitsua da. Prezioa negoziatzen da. Tel.: 628 332 848.

- 80 metro karratuko etxea alokatzen da Lasarte-Orian. Telefonoa, 628 904 130.

- Lokala alokatzen da, 35 m²koa Zabaleta auzoan. Harremanetarako telefonoa: 686 234408

- Pisua salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

- Gela bat alokatzen da Lasarte-Orian etxe partekatu batean. Telefonoa: 600 612 085.

Salerosketak

- Salgai autorako 4 hagu (Ilanta) 195/ 50r 15 neurrikoak. Tel.: 638 421 713.

- Halo III edizioko XBOX 360a saltzen dut zazpi joko eta HMI kablearekin. Guztia, 100 eurotan. Telefonoa, 647 254 082.

- Txirrinda, txistua eta 50 litroko akuario bat saldu nahi ditut. Tel.: 943 372 752 (Gauze deitu)

Lan-eskaintzak

- Interneten nabigatzen ikasteko eskolak hartu nahi ditut. Ikastaroa etxean egingo litzateke. Telefonoa, 943 362 587.

- Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Tel.: 619 468 751.

- Gitarra elektrikoko irakaslea behar da etxean klaseak emateko. Telefonoa, 661 011 946.

Lan-eskariak

- Pelukeriako produktuen sorta bat salgai daukat, prezio onean. 697 906 570.

- Gaixoak eta pertsona helduak zaintzeko, bai etxean baita hospitalean ere. Tel.: 676 115 425.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com • Tel.: 943 366858

Jaiotzak

Oier Ipina Aguirre, apirilaren 3an

Heriotzak

Maritxu Subizar Sarrat, apirilaren 14ean 77 urte zituela

Milagros Subiza Josefate, apirilaren 11ean 81 urte zituela
Andrés Ayastuy Itzaguirre, apirilaren 10ean 64 urte zituela
Esther Teran Nicolas, apirilaren 8an 79 urte zituela

Guardiak

Ostirala, 16

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Larunbata, 17

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 18

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 19

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astearte, 20

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 21

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 22

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Jardunaldi Internazionalistak azken txanpan

■ Gaur, Hogei minutu taldearen kontzertua dago Obelixen eta bihar, afaria mexikar begetarianoa Xirimiri elkarte



Haien esperientzia aurkezteaz gain, herritarren galderei erantzun zieten Jardunaldi Internazionalistetako hizlariak.

Kapitalismoari aurre egitea posible dela azaldu digute aurten Komite Internazionalistak eta Askapenak, XII. Jardunaldi Internazionalistetan.

Hitzaldiak

Lehenengo larunbatean teknologia berrien tailerrarekin hasi ziren.

Asteazkenaren, astelehenerik asteazkenaren, Manuel Lekuona kultur etxera gerturatu diren herritarrek elkarte ezberdinen esperientzia ezagutu ahal izan dute, elikaduraren mailan Usurbilgo

Nekazal kooperatiba edo banka etikoarenean FIARE kreditu kooperatiba. Eta, era berean, korrante berria den deshazkundeari buruz jakin zuten.

Filma

Atzo, berriz, Okendo Zinema Taldeari esker, *Fast Food Nation* filma ikusi ahal izan zen.

Honetan, era kritikoa, Estatu Batuetako *fast food* kateek ekoizpen katea azaltzen saiatzen da eta, era berean, egun horrelako katek

gizartean duten garrantzia azpimarratzen da.

Azken ekitaldiak

Gaur, 21:00etan kontzertua antolatu dute Obelix tabernan.

Bertan, Hogei minutu talde lasarteoritarrek protesta-abestiak eskainiko ditu.

Eta, arestian, aipatu bezala, bihar 21:00etan, Xirimiri elkartearen egingo den afari mexikar begetarianoarekin amaiera emango zaie Jardunaldiei.

Afariko txartelak 12 eurotan daude salgai Jalgi tabernan eta Xirimiri elkartearen. •

UDALA

San Pedro jaietarako iradokizunak eta ekitaldiak

San Pedro jai parte-hartzaileak aurrera eramateko asmoz, Gazteria eta Festetako sailak hiritarren artean deialdia egin du dagoeneko beren proposamenekin parte hartu dezaten.

Bandoak jarri dira portaletan lasarteoritarrei beren ideiak ematera animatuz. Apirilaren 19tik maiatzaren 6a bitartean aurkeztu beharko dira, idatziz eta proposamenaren egilearen datuekin Manuel Lekuona kultur etxean dagoen postontzi berdean.

Elkarteak

Era berean, San Pedro jaietarako proposamenak egiteko epea datoren apirilaren 20ra arte zabalik dagoela gogoratzen zaie elkartei.

Aipaturiko proposamenak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira, 9:00etatik 13:00etara. Departamentu horrekin xede horretarako prestatu duen eskaera-inprimakian aurkeztu beharko dira, bertan adierazi beharko direlarik entitatearen izena, bere arduradunaren datuak, jardueraren eguna, ordua eta tokia, aurrekontua, eta Udalaren aldetik beharrezko izango diren prestatuak.

Manuel Lekuona kultur etxean gaiari buruzko informazioa eta eskaerak egiteko inprimakiak emango dira.

Aztertu eta erabaki

Epe horiek amaituta, sailak ideia guztiak aztertu eta haietatik aurrera eraman daitezkeenak ikusiko du.

Departamentuak elkarte eta lasarteoritar guztiak, eta gazteak bereziki, gonbidatu nahi ditu parte hartzera, modu horretan 2010eko San Pedro jaiak guztien gustura egin ahal izateko. •

MUSIKA

Oreindik taldeak Leioako X. Maketa Lehiaketan saria eskuratu du

Lasarte-Oriako Oreindik taldeak *Euskara zerbitzua* saria irabazi du X. Leioa Maketa Lehiaketan. Euskarazko abesti onenaren saria jaso du *Zerri hegalaria* abestiarekin.

2009an sortu zen talde honen lehenengo saria da hau. Rock, funky, pop, metal... estilo desberdinak nahasten dituen maketa dute. Hizki pertsonalak eta gertukoak eta une, zein ideia desberdinen isla direnak aurkezten dituzte haien abestietan.

Lehenengo larunbatean, Sustrai tabernan entzuteko aukera izan genuen eta arrakasta handia izan zuten. *Zerri hegalaria* kontzertu amaieran errepikatu zuten abestietako bat izan zen.

Gaur, berriz, Orioko Txalupa musika antzokian joko dute 22:30etatik aurrera eta Makulu Ken talde lasarteoritarra ere bertan egongo da, bere doinu afroak eskaintzeko. Sarrera 5 eurotakoa da. •

II. Udaltop jardunaldiak hurrengo astean egingo dira Manuel Lekuona Kultur etxean

Euskal Herriko Euskara Zerbitzuen topagunea izango da Lasarte-Oria, hurrengo astean, apirilaren 21 eta 22an.

Herri desberdinetako euskara teknikariek *Nerabeen aisia eta lagunartea* gaia jorratu eta *Zer eta nola egin daiteke udaletatik nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?* galderari erantzuna ematen saiatuko dira II. Udaltop ireki dituen bi egun horietan.

Aurten gainera, iparraldean hasi berriak diren udaletako euskara teknikariak gonbidatu dituzte jardunaldi hauetan parte hartzera eta haien esperientzia entzuteko aukera egongo da, besteak beste. •



Euskara Zerbitzuetako jardunaldiak izango dira, berriro ere, gure herrian.

Herriko gazteentzat ikastaro ugari kulturetxean

Esparru ezberdineko ikastarok antolatu ditu Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria sailak, hamalau urtetik gorako gazteentzat.

Apiriletik ekainera, dietetika eta nutrizioa, batuka, coaching-aren hastapena, jende aurrean nola hitz egin, web 2.0: sare sozialak, umorearen tailerra, bisuteria, argazkigintza: kamara digitala, tangoa edo polinesiar dantzak ikasteko aukera dute herriko gazteak.

Astean behin, bi orduz edo ordu eta laurdenez ikastarok Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko dira.

Ikastaro bakoitzeko ikasle kopurua mugatua da, beraz,

mugi zaitezte hauetan parte hartu nahi baduzue.

Izena ematea

Izena emateko azken eguna da gaur.

Lasarte-Orian erroldatuek ikastaro bakoitzeko 20 euro ordaindu behar dituzte eta erroldatu gabeak, aldiz, 30 euro.

Era berean, Lasarte-Oriako gazte txartela dutenek beharrezkoak dituzten gogoratzen du Gazteria sailak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hurbildu Manuel Lekuona kulturetxeko hirugarren solairuan dagoen gazteentzako informazio bulegora. •

Fernando Furundarena/ Egunkariako auzi ekonomikoan auzipetua

‘Egunkariaren itxiera inkonstituzionala izan zela frogatu da’

Zazpi urte igaro dira *Egunkaria* itxi zutenetik. Epe luzea izan da, *Egunkaria* auziko epaiketa abenduan hasi zen eta, astelehenean, epaiketaren sententziak itxiera inkonstituzionala izan zela dio. Orain, auzi ekonomikoan geratzen da eta horretan, Fernando Furundarena herritarra dago auzipetua. Harekin solaldia egin dugu, azken berriei eta bere auziari buruz gehiago jakiteko.

TXINTXARRI

Egunkariako partaideok nola hartu duzue asteleheneko epaia?

Ilusio handiarekin hartu genuen. Jendeak oso animatua dago eta lasai.

Tentsioa handia izan da eta bide hori bukatzen ari dela ikusten dugu. Hala ere, ez da amaiera.

Epaia entzun ondoren, ikusten dugu bidea bukatzen ari dela eta eguzkia ateratzen dela.

Argi geratu da alrebeskeria handia izan zela, ezta?

Bai. Bermudezen sententzia irakurri ondoren, *Egunkariaren* itxiera inkonstituzionala izan zela argi geratzen da eta guretzat oso garrantzitsua da hori.

Gainera, Del Olmoren inspekzioa lotsagarria izan da. Del Olmok erabili zituen argudio guztiak, adituen txostenak, frogak... sententzian banaka deuseztatu dituzte.

Gainera, zituzten zantzu batzuk anbiguoak dira eta ikuspuntuaren arabera, gure aldeko edo aurkako izan daitezke.

Ez dugu ulertzen. Ez dute epaiketan esandako ezer frogatu. Eta orduan, zergatik itxi zuten *Egunkaria*?

Norbait gauza ilegalak egiten ari bada, hori atxilotu eta egunkaria mantendu. Ekonomikoki zerbait gaizki egiten ari dela, administratzaile judiziala jarri eta kitto. Zertarako egunkari bat itxi? Edo edozein komunikabide.

Honetaz gain, euskaraz zegoen egunkari bakarra zen, eta orduan irakurle sektore hori ere kaltetua izan zen.

Dena den, oraindik amesgaiztoa ez da bukatu, Epaitegi Gorenera jo nahi baitute *Dignidad y Justicia* eta Terrorismoko Biktimen elkarteak...

Bai, horrela da. Gurutze bide hau luzatzeko era da hori.

Sententzia argia izan ondoren ere, beti geratzen da kezka hori.

Hori sistematikoki egiten

dute, haien helburua hau luzatzea da.

Nik ez daukat oso garbi egingo duten, bere irudia zikintzea izango litzateke.

7 urte itxaron behar izan dira epaiketarako, epe luzea benetan...

Lotsagarria da prozesu osoa hainbeste luzatu izana. Hau urte beteetan egin zitekeen. Hasieran, aztarnak zituztela esan eta epaiketan ez da horrelakorik frogatu, ez bankuko mugimendurik, ez ezer.

Prozesua hainbeste luzatzea eta epaiketak atzeratzea... Hori izan da guretzako bigarren kondena.

Nolakoa izan dira zazpi urte hauek?

Pisu handia izan dugu gure gain eta gure artean partekatutako dugu, lagunekin, familiarekin... Azkenean, denon artean.

Izan ere, zuk bakarrik ezin duzu hori zure gain eraman. Gizartea, familia eta lagunekin babesa eman eta horrekin aurrera egiten duzu. Bizi behar zara eta aurrera egin behar duzu derrigorrez.

Guztiok ongi igaro dugu. Beno, batzuk okerrago, paper hori tokatu zaielako. Ni ez naiz kartzelan egon, baina lankide batzuk kartzelatuak izan dira eta zenbait torturatuak izan dira. Egoera desberdinak bizi izan ditugu.

Eskatuko al diozue Estatuari kalte ordainik?

Hori horrela ezin da geratu pentsatzen duzu eta sentimenduek kalte ordainak eskatzera eraman ahal zaituzte.

Baina lehenengo prozesu osoa bukatu behar da, helegiteak jartzen dituzten ikusi, gure epaiketa egin... Eta, gero, gure abokatuak aztertuko dute kalte ordainak eskatzeko aukera garbiri dagoen. Horrela bada, aurrera egingo dugu.

Zuri pertsonalki ez zegokizun sumario hau, auzi ekonomikoan sartu zaituzte, epai honen

ondoren nola ikusten duzue afera? Lasai al zaudete?

Lehenengo epaiketako emaitza mantentzen bada, bigarren epaiketakoak lasai gaude.

Argi genuen, lehenengo sumario hau egin behar zela lehenik eta gero ekonomiko, gurea. Bien arteko loturak daude eta horiek ongi azaltzeko horrela behar zuen.

Era horretara egin da eta terrorismoarekin loturarik ez dagoela argi geratu da. Horrek gure epaiketa errazten du.

Izan ere, guri dirulaguntzak eta BEZrekin zer ikusia duten delituak egotzi zaizkigu. Hor kaltetuak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira. Ez bata, ez bestea ez dira akusazio bezala agertuko epaiketan. Beraz, akusazio popularraren izango da, *Dignidad y Justicia* elkartearena.

Honetaz gain, Aldundiak txostena aurkeztu du deliturik ez dagoela esanaz. Beraz, ez dakigu zein izango den epaiketaren muina.

Oraindik ez duzue datarik, ezta epaitegirik...

Lehenengo Audientziak bere kompetentzia den edo ez erabaki behar du.

Kompetentzia ez bada, Tolosako epaitegiari dagokio epaiketa egitea.

Printzipioz, Audientzian narrazio kasuak, kororaren aurkako

delituak, terrorismo kasuak... epaitzen dira.

Eta hori ez da gure kasua. Gu ekonomia delituengatik inputatuak gaude. Lehenengo sumarioan terrorismoarekin loturarik ez dagoela frogatu denez, Audientziak epaiketa egitea ez du zentzurik.

Gipuzkoara epaiketa ekartzeko badute ez da arazorik egongo.

Eskaera beldurgarriak egiten ditu akusazioak, zer deritzozu?

Gure kasuan, 26 urte dira gehienez akusazioak eskatzen duena. Zortzi auzipetuen batuz, ia 200 urte dira. E t a
d i r u

kopurua ere gehiegizkoa da. Nire kasuan, 21 milioi euro eskatzen dituzte! *Egunkariako* balantzea 6 milioi eurokoa zen! Beste inputatu batentzat 30 milioi dira.

Desoreka handia ikusten da eskaera horietan. Erabiltzen duten irizpidea gainera, aldatzen doa. Prozesu batean irizpide desberdinak daude, interesen arabera. Haiek nahi duten diru kopurura iristeko.

Jendearen babesa izan duzue 7 urte hauetan eta hori eskertzeko ekitaldi bat antolatu duzue, ezta?

Gizarte osoaren babesa izan dugu. Mobilizazio ugari egon da, ideologia desberdinetakoak gainera.

Ekonomikoki ere, jendeak asko lagundu du, kamisetak, pegatinak... erosi dituzte eta oso garrantzitsua da, prozesua osoa ordaindu behar dugulako, abokatuak, perituak...

Hori guztia eta jendearen berotasuna eskertzeko apirilaren 25ean festa egingo da Bilbon, Euskalduna jauregian goizeko 11:30ean. Han egongo gara eskerak emateko. •



Hernandorena saria irabazi du Ane Labakak

Euskal Herri osoko 12 bertsolari gazteen artean jokatu da martxoan eta apirilean

Ane Labakak Hernandorena sariko txapela eskuratu zuen aurreko larunbatean Xuberoako Muskildin herrian jokatu zen finalean. Iparraldeko Bertsularien lagunak elkarrekin antolatzen du sari hau eta Euskal Herri osoko 12 bertsolari gazteren artean lasarteoriatarra nagusitu da aurten. Amari eskaini zion txapela Ane Labakak.

JON ALTUNA

Muskildiko Pusunpese-nea jendez bete zen aurreko larunbatean Hernandorena sariko afari-finala ikusteko. Ane Labakarekin batera Aimar Karrika, Ximun Cazaubon, Izar Mendi-guren, Maiana Irigoien eta Eneritz Arzallus-ek kantatu zuten finalean, kanporaketa gainditu eta gero. Afarian zein afalostean giro goxoa izan zen eta azkenean Ane Labaka izendatu zuen txapeldun epai mahaia. Aimar Karrika nafarra izan zen txapeldun ordea.

Amari eskaini zion txapela lasateoriatarrek: "lehenik eta behin musu handi bat bidaltzen det zuengana, (...) zu zarelako nire geroa eta nire iragana, zu zarelako niri bizi-

tza behin oparitu zenidana, bertso batean ezin det esan zu niretzako zerana, baina hau behintzat esan dezaket, asko maite zaitut ama.

Txapelketa bitxia

Hernandorena sariketa berezia da, bi kanporaketak eta finala bertso afarietan erabakitzen dira, iparraldeko hiru lurralde-tan. Kanporaketak Larresoron eta Donibane Garazin egin ziren eta finala Muskildin, Xuberoan, Lasarte-Oriatik autoz bi ordu eta gehiagora. Pozik zen Ane Labaka txapela jantzita: "honaino etorri gara dakiguna egin eta gero etxera gustura joateko asmoarekin eta txapelarekin gusturago joango naiz".

Sariak ere bereziak dira txapelketa honetan. 1948ko apirilaren 4an, Teodoro Her-



Irudian, Hernandorena sariketako finalean aritu ziren sei bertsolariak. Txapela bere amari eskaini zion Ane Labakak.

nandorenak antolatuta jokatu zen lehen aldiz. Saran 22 bertsolarien artean (besteak beste Xanpun, Mattin eta Xalbadorrek hartu zuten parte) eta Xanpun txapeldunak txerri txiki bat eraman zuen saritzat. Hura oroituz edo, sari bereziak dira urtero gazteen arteko sariketa honetan. Iaz, Unai Gaztelu-mendi txapeldunak oilarra era-

man zuen eta ondorengoek bildotsa, txerria eta oiloa. Aurten hiru azkenek hiruna untxi jaso zituzten bizi bizirik. Ane Labakak bildotsa eraman zuen baina jada hilik, Aimar Karrika bigarrenak bildots erdia eta gazta, eta Eneritz Arzallus hirugarrenak beste bildots erdia.

Zalantzarik gabe maila onean ari da Ane Labaka azken


asteotan. Duela gutxi txapeldun ordea izan zen Algortako Abra sarian Jone Uriaren atzetik eta orain Hernandorena saria eskuratu du. Berak ere argi du txapelketak ezagun egiteko modua direla, baina saioetan gehiago gozatzen dela. Hurrengo aukera, maiatzaren 8an izango du Kultur Etxean Itakunek antolatutako saioan. •

ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

APIRILAK 24 larunbata - 11:00

ORDIZIA

APIRILAK 17 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

IRUN 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA

APIRILAK 22 osteguna - 18:00

areto nagusian

JUDO

Zubizarretak 23 urte azpiko Espainiako txapelketarako sailkapena lortu du

Lehenengo igandean, apirilak 11n, LOKEko Leire Zubiarreta eta Iñaki Elizalde Zaragozan ospatu zen 23 urte azpiko Espainiako txapelketako Iparraldeko sailkapen lehiaketan borrokatu ziren.

Leire Zubizarretak zilarrezko domina eskuratu zuen 70 kilo azpiko mailan. Era honetara, apirilaren 24an Madrilen jokatu du finalerako txartela lortu zuen.

Iñaki Elizalde, berriz, 100 kilo azpiko mailan eskura izan zuen sailkapena, baina brontzezko domina eskuratu eta kanpoan geratu zen. •

IGERIKETA

Helduentzako ikastaroa

Apirilaren 23tik ekainaren 9ra, helduentzako hasiera eta erdi mailako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Asteen hiru saio izango dira, astelehen, asteazken eta ostiralean, 20:30etik aurrera.

Izena emateko azken eguna da gaur. Ikastaroak 103,30 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 57,40 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943 376 182 telefonora deituz eska dezakezue. •

ERRUGBY ESKOLA

Entrenamenduak igandero

Beltzak-Ostadar Rugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30ak bitartean entrenamendua egiten dute Michelinen, beti ere, futboleko partidarik ez badago.

Rugby eskolako antolatzaileek, Lasarte-Oriako gazte guztiak gonbidatzen ditu ekimen honetan parte hartzera. •

Pilotako herriarteko txapelketa bihar hasiko du Lasarte-Oriak

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa-Kutxa Saria lehenengo ostegunean, apirilaren 8an, aurkeztu zen Zientziaren kutxagunean.

23 herrik parte hartuko dute aurtengo edizioan eskuzko sailan eta Lasarte-Oria horietako bat izango da.

Joan etorriko kanporaketak izango dira eta gaur jokatuko dira lehiaketako lehenengo partidak.

Lasarte-Oriako taldeak Soraluze du bere lehenengo arerioa eta, bihar 16:30ean, Michelingo frontoian aurrez aurre egongo dira.

Talde gaztea

Asier Arteaga eta Ander Rekondo kadete mailan, Ander Zulaika eta Gorka Mendizabal gazteen mailan eta Aitor Aranburu eta Mikel Elola seniorretan dira Lasarte-Oriaren izenean herriarteko txapelketa jokatu dute bikoteak.

Joxe Felix Solano arduradunak azaldu digunez talde



Herriarteko txapelketan, Soraluze izango da Lasarte-Oriaren lehenengo aurkaria.

gaztea da Lasarte-Oriak aurkiten duena. Hala ere, ongi jokatzen duten bikoteak dira eta guztiak lan ona egitea espero du.

Kanporaketa

Bihar Soraluzeren aurka jokatu behar dute lasarteoriatarrek.

Talde honek aurtengoa eman

du izena txapelketan eta Joxe Felix Solanok azaldu digunez, "ez dakigu zer gertatuko den kanporaketan. Senior mailan bikote sendoa dute, baina gazte eta kadete mailako bikoteei buruz ez dakigu ezer. Beraz, bihar ikusi beharko eta horren arabera, hurrengo aste-ko partidak prestatu." •

Kiroltako agenda

FUTBOLA

Larunbata 17

- 10:00etan, Ostadar-Mutriku (Partehartzeko infantilak, kopa) Michelinen.
- 11:30etan, Ostadar-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Michelinen.
- 12:30etan, Hernani-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I, kopa) Zubipe, Hernanin.
- 13:15etan, Ostadar-Tolosa (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.
- 14:45etan, Ostadar-Arrasate (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Michelinen.
- 16:00etan, Ostadar-Munibe (Erregional Goren) Michelinen.
- 17:45etan, Texas Lasartearra-Segura (I. Erregionala, kopa) Michelinen.
- 19:30etan, Euskalduna-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Allurralde, Andoainen.

Igandea 18

- 10:00etan, Ostadar-Antiguoko (Alebinak, txapeldunen fasea) Michelinen.
- 11:15etan, Ostadar-Vasconia (I. Kadetea, igoera fasea) Michelinen.
- 16:00etan, Segura Goierri-Ostadar (Emakumezkoen liga, kopa) Alustiza, Seguran.

FUTBOL 7

Larunbata 17

- 18:00etan, Spartak de Obelix-P. Eceiza (III. maila) Igartzta, Beasainen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 17

16:30ean, Zarautz-ISU Leihok (Gipuzkoako Liga, I. maila) Antoniano kiroldegia, Zarautzen.

Igandea 18

10:45ean, Aldaz H.K.-La Bellota (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxka eta kontsolazioa Ostirala 16

20:30ean, Mingallon-Viña del Mar

Larunbata 17

- 9:15ean, Ilargi-IQB H.K.
- 10:15ean, Obelix-Siglo XX
- 11:15ean, Tragoxka-Naiban
- 12:15ean, Biyona-Morrison
- 13:15ean, Goiz Argi-Okela

Final laurdenak, kiroldegian

Larunbata 17

- 09:30ean, Izkiñia-Lekuona Mena
- 10:30ean, Epel-Izarrar
- 15:00etan, Buenetxea-Ainhoa

Igandea 18

09:30ean, ISU L.-Oria kristal.

SASKIBALOA

Larunbata 17

18:00etan, C. San Marcial Erroibide-Jalai (Gizonezko seniorra) Azken Portu kiroldegia, Irunen.

JUDO

Larunbata 17

09:00etan, LOKEko Beñat Elei-

zegik Espainiako txapelketa Unibersitarioan parte hartuko du, Madrilen

ATLETISMO

Igandea 18

10:00etan, Ostadarreko atletismo taldeak ARCCOk herri lasterketan parte hartuko dute, Donostian.

Goiza osoa, Landaberriko alenita eta infantilek Gipuzkoako txapelketako lehenengo saioan parte hartuko dute, Tolosan.

IGERIKETA

Larunbata 17

10:00etan, Buruntzaldeko Igeri taldeko gaztetxoek Manuel Garcia XI. Sarian parte hartuko dute, Tolosan.

16:00etan, Buruntzaldeko Igeri taldeko gaztetxoek Kirol Zehaztasun Ligako 4.jardunaldian parte hartuko dute, Tolosan.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Larunbata 17

10:45ean, LOKEko jubenila eta kadete gimnastek eskolarteko txapelketako 2. fasean parte hartuko dute, Bergaran.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 17

15:00etan, Buruntzaldeko jubenilek Gipuzkoako XI. Klasikan parte hartuko dute, Bergaran.

16:30ean, Buruntzaldeko gaztetxoek Donostiako Saria proban parte hartuko dute, Donostian.

Igandea 18

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Segurara egingo du irteera.

09:00etan, Lasarte-Oriako II. BTT trabesia eta Txiki trabesia, Hipodromo zubiaren ondoan.

PILOTA

Larunbata 17

- 16:00etan, Hernani-Intza2 (alebinak 2. urtea) Herrera, Donostian.
- 16:00etan, Urnieta-Intza I (alebinak 2. urtea) Andoaineko eskola, Andoainen.
- 16:00etan, Intza I-Hernani2 (Infantilak) Zestoan.
- 16:00etan, Intza2-Hernani3 (Infantilak) Urnietan.
- 16:30ean, Soraluze-Lasarte Oria (Herriarteko txapelketa) Michelingo pilotalekua.
- 16:30ean, EPLE-Intza (Eskuz banaka, seniorra) Fanderia, Errenterian.

PALA

GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA

Michelingo pilotalekuan

Larunbata 17

15:00etan, Xabier Arteaga eta Jonpe Artetxe-Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpilleta.

Igandea 18

- 09:00etan, Asier Munduate eta Beñat Pagoaga-Oscar Lazkano eta Iñigo Arluziaga
- 09:45ean, Asier Munduate eta Beñat Pagoaga-Josu Iparragirre eta Koldo Rozas
- 10:35ean, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin-Iñaki Lizaso eta Joxerra Alzibar

SQUASH

118:00etatik aurrera, kiroldegian

Ostirala 16

Emilio Hernandez-Joaquin Peña
Oswal Cañedo-Fernando Montero

Astelehena 19

Paxi Delgado-Iker Cañedo

Asteartea 20

Agustin Erkizia-Iker Serrano
Alberto Udabe-Raul Mateos

Asteazkena 21

Kinin Calvo-Javier Serrano
Xabi Amiano-Aitor Artola

Osteguna 22

Iker Cañedo-Oswal Cañedo

BOLA-JOKOA

Igandea 11

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak lehendakari txapelketako saioa du, Zerainen.

Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatuak ikusgai Jalgi kafe-antzikian.

Erakusketa

PINTOREAREN ESTUDIOKO IKASLEEN erakusketa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 16

Kontzertua

YDILIA rock taldearen kontzertua Xpression eta Udalak duten akordioaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Kontzertua

OGEI MINUTU taldearen kontzertua XII. Jardunaldi Internazionalisten programazioaren barruan. Obelix tabernan, 21:00etan.

Larunbata, 17

Kontzertua

ALL BECAME DUST taldearen metal alternatiboa eta DRAK-KEN METAL CORE taldea Ilargi tabernako beheko solairuan. Ilargi tabernan, 19:00etan.

Afaria

AFARI MEXIKAR-BEGETARIANO XII. Jardunaldi Internazionalisten programazioaren barruan. Menua 12 euro. Xirimiri Elkartearen, 21:00etan.



"Gezurrezko printzea"

Gezurrezko printzei buruzko antzerkia gaur Jalgin

GEZURREZKO PRINTZEA antzezlan, Txirene antzerkia. Antzezan hau Euskara Elkarten Federazioak, Topaguneak martxan jarritako Kultur Errota egitasmoaren barruan kokatzen da.

APIRILAREN 16AN, OSTIRALA
JALGIN 21:30EAN
EUSKARAZ

Igandea, 18

Zinea

TIANA Y EL SAPO haurrentzako filma. Sarrera 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena, 19

Kontzertua

EUSKAL IPUIN BAT izeneko kontzertu pedagogikoa. Kulturetxean, 18:00etan.

Asteartea, 20

Hitzaldia

ERAKUTSI BEHAR AL ZAIE SEME-ALABE KONPARTITZEN? hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok. Kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

Osteguna, 22

Hitzaldia

KUDEATUZ egitasmoko 3. bilera. Osasun Zentroko 3. solai-

ruan, balio anitzeko gelan, 18:30ean.

Zinea

LABURBIRA, Film laburren VII. Zirkuitua Topagunearen eskutik. Honako filmak eskainiko dira: Ahate pasa, Zorion hutsa, Nora zoaz, Clark & Boris, Odisea etxealdean, Kamera-toia, Esaiok eta Amona putz. Jalgin, 21:00etan, EUSKARAZ.

Ostirala, 23

Kontzertua

Zumaiako SAN PEDRO ABESBATAren emanaldia Danok Kidek antolatzen duen V. Musika Topaketaren barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Kontzertua

URKO MENAIAren kontzertua, URKO eta pop estiloak jorratzen ditu. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan.

Larunbata, 24

Antzerkia

TXIRULARI MAJIKOA haurrentzako antzezlan Teatro Paraiso taldearen eskutik. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 25

Zinea

LILY, LA PRINCESA HADA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Oharrak

Oztabide auzo-elkarteko bilera

Arranbide eta Oztaran-eko bizilagunei jakinarazten zaie, Oztabide auzo-elkartek bihar larunbata bilera egiteko deia egin duela. Apirilaren 17an goizeko 11:00etan Oztabideko lokalean, Oztaran ikastetxearen atzekaldean, burutuko da bilera. Zalantzarik izanez gero, deitu 627 818 225 (Joseba) edo 661 068 301 (Pili) telefono zenbakietara edo idatzi oztabide@hotmail.com helbide elektronikora.

Udako Txokoetan begirale

Udako Txokoetan (uztailan eta abuztuan) begirale izateko aukera eskaitzen du Ttakunek. Informazio gehiago eta izen-ematea Ttakunen: Geltoki kalea 4n edo 943 371 448 telefono zenbakian.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostialetan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Xabier Bardaji Ollokiegiri

Nire lagun kuttun Xabier-i Hire anai gaztea nauk, Joxemari. Gaur ezin diat lorik egin, burua bueltaka darabilkiat denbora askoan, goizaldeko hirak dituk, ohetik jaiki nauk eta ordenadorean eseri. Ez zekiart nondik hasi, gogoe-tak pilatu egiten zaizkidak.

Pertsona moduan, heure sendiaren maitale handia izatearekin batera, bi definizio hauek jarriko dizkiat:

Oriatari handia, batez ere Oriako Sorgin dantzaz maitemindua.

Anai handia, baina batez ere lagun handia eta adiskide hobe.

Oriatari handi gisa

15 urterekin hartu huen parte Sorgin Dantzaren, auzoko gazteek osatutako taldearekin batera. Talde hau prestatu eta lehen aldiz ateratzen duk ospakizun handi bat zela eta, Brunet enpresaren ehungarren urteurren edo mendeurrenean.

Ondoren beste hainbat

herritan eta jaialditan jarduteko eskatu zizueten. besteak beste, Donostiako Konstituzio plazan eta zezen-plazan.

1990ean Oriako zenbait lagun bildu zineten, Iñaki, Alfredo, Sebastian eta Felix Telleria lasartearra, dantza betikotu eta iraunarazteko helburu nagusiarekin.

1993tik aurrera San Pedro jaiak Sorgin jaiarekin hasten dituk, Oriatik atera eta Oken-do plazan bukatuz, ibilbideko hainbat puntutan Sorgin Dantza eskainiz. Zenbat ordu eman ote dituk ume eta helduei dantza hau erakutsiz. Azken urtean ere, 2009an, parte hartu huen eta uste diat 200 baino parte hartzaile gehiago izan zinetela.

1994an, bazkari eder batean, aurkeztu zenuten Oriako Sorgin Dantzaren Lagunak Kultur Elkarte berria.

1997an, hainbat urtetan datuak biltzen aritu eta gero, Oriako Sorgin Dantza liburu bikaina aurkeztu zenuten Manuel Lekuona kulturetxean.

2002an Bruneteko lorate-

gian bideo bat grabatu zenuen eta gero Kultur Etxean aurkeztu.

Hire Sorgin Dantzaz gain, 2000 urtetik aurrera, hire emazte Maritxu eta anai Joxe Mari eta Maribeekin batera, Ori auzoko 1948 urte inguruko errolda egiten parte hartu huen. Hain zuzen ere, 2005an aurkeztu nuen eta hi egilekide hauen "Ori eta nire oroitzenapenak" liburuaren oinarri izan zuan gero errolda hori.

2006an Antxon Aguirre Sorondoren "Ori, bizitza komunitatea, lan espazioa" liburuan parte hartu huen aktiboki eta gogotsu.

Dena ez duk Oriarekin lotua izan, kirolari eta kirolzale ona izanik, gogoan diat Ostadarren eskutik jaso huen oroigarri dotorea, hainbat urtean elkarte honek antolatutako pala txapelketan epaile izatearen esker onez.

Anai gisa

Beti zaindu duk anai txikia, batez ere, umeak ginen urteetan.

Lagun gisa, gure adiskidetasuna nik 17 urte nituela hasi zuan, Michelingo taldean futboleko elkarrekin jokatzaren gurenean. Hainbat herritako futbol zelaietan zehar ibili gintuan. Joan etorri luzeetan, gure neska-lagunekin batera. Gogoan diat Gasteizera egin genian bidaia batean Oriako lau futbolari hiri honetan paseatzen: Prudencio bere bikotearekin, Iñaki Mertzerekin, hi Maritxurekin eta ni Maribeekin.

Futbola uztean batez ere Irungo Real Union eta Andoaingo Euskaldunarekin nik jokatu nizkian partidu gutzietara joaten hintzen, Xabi semearekin batera.

Futbola bukatzen duk, gure seme-alabak jaiotzen ari dituk, eta hor hasi hituan asteburuetako gure irteerak. Maritxu eta Maribelek prestatutako jatekoak hartu eta mendialde-ara, beti ere, uretatik hurbil, hor gozatzen baitziateen gehiena gure seme-alabek.

50 urte baino gehiagotan elkarrekin joan gaituk ehun-

daka kirol ekitalditara: Lasarteko Krosera (harro hintzen lehen 50 urteetan bertan izanagatik) Kontxako estropadatarra, zaldi lasterketetara (hona emazte eta seme-alabekin batera) eta Atotxa edo Anoetara gure bihotzeko Errealak ikustera.

Ezin dizkiat ahaztu etxean gure lagunik onenak izan diren Maitxu eta Maribeekin (biak emakume bikain eta apartak) edukitako tertuliak, ezta ondoren kafea hartzera Gure-Etxeara egindako irteerak ere.

Goizeko 7ak dituk, argitzen ari dik, kostatzaidak has-tea, baina agurtzea, are eta zailagoa duk: soilik esan nahi diat hire ondoan, gure emazte eta seme-alabekin batera, nire bizitzako unerik zoriontsuenak pasa ditudala. Beti izango haiz nire lagun mina. Agur Xabier

Joxe Mari
2010eko apirilaren 8an

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Nekane Martiarena/ Sendabelarretan aditua

Sendabelarren bigarren ikastaroa prest

Apirilaren 24an, larunbatean, sendabelarrei buruzko bigarren ikastaroa antolatu du Ttakunek Nekane Martiarena oiartzuarraren eskutik Lasarte-Oriaren inguruan aurkitu ditzakegun sendabelarrak ikusi, ezagutu eta jasoko dituzte. Interesa baldin baduzu hilaren 22a baino lehen Ttakun elkartetik pasatzea baino ez duzu izena emateko. Jasotako belar guztiakin bazkaria egingo da mendri martxa ostean. Guztia 10 euroren truke. Ez galdu aukera! Eta ez ahaztu oinetako eroak eta apunteak hartzeko koadernoak ekartzea!

Txintxarri

Goizeko 09:00etan irtengo dira Sagardotegi kaletik mendri bueltatxo ematera. Gure inguruko sendabelarrei buruz gehiago jakiteko aukera ederra duzue hau, azalpenak Nekane Martiarenak emango baititu.

Nola sartu zara sendabelarren munduan?

Txikitatik gustatu izan zait mundu hau. Bada urte asko Oiartzunen baserri baserri ibili nintzela beste emakume batekin ikasten. Honetaz aparte, nire kabuz mendira joan belarrak hartu, liburuetan bilatu eta ikasten ere ibili naiz. Eta gero, liburuak irakurtzen eta gaur egun interneten ere aritzen naiz saltsan.

Afizionatua irakasle bihurtuz.
Gauza da jakin-mina izatea

eta mundu honetan barnertzea, baina besteei helarazi ahal izateko jakintza edukitzeko puntura iristea... beno, ni ez naiz irakasle. Hau ez da nire ogibidea, nik beste lan bat dut. Badakit euskaldun jende gutxi dagoela mundu honetan, beraz, deitzen nautenean ezetza ematea asko kostatzen zait.

Liburu idazlea ere bazara.

Berria egunkarian sendabelarrei buruz artikulua bat idazten nuen. Egunkari honek bere kanpaina batean artikulua hauek borobildu eta liburu bat egiteko eskatu zidan. Honela *Sendabelarrak landareen mundua* ateratu zen. Ondoren, Elkar editorialak, deitu eta *Ttartalococinas* izena duen sailean sendabelarren inguruan zerbait egin nahi zutela esan zidaten baina gaztelaniaz eta *50 hierbas buenas* liburu

egin genuen. Frantsesez ere badago. Liburuetan ohikoen diren sendabelarrak hartu ditugu baita jangarriak diren errezeta bat sortu edo asmatu ere.

Nolatan iritsi zara ikastaro hauen irakasle izatera?

Nik uste egoerak eraman nauela. Oiartzungo Haurtzaro ikastolan sendabelarrak gaiarekin daudenean urtero joaten naiz eta lau gauza erakusten dizkiet. Fraisoro nekazari eskolan lagun bat dut irakasle eta urtero ere klase bat ematen dut. Lagun batek deitzen banau kosta egiten zait ezetza ematea. Nola esan ezetza herri elkarte bati, ikastola bati, akeri, mundu honetan interesa duen jende jatorrari? Ttakun elkarte ez da lehenengoa izan deitzen, gainera nik batzuetan flipatzen dut jendeak nola lortzen duen nire telefonoa. Nire ogibidea hau ez denez, segun nori, ezetza ere ematen diot.

Baina berriz diot ni ez naizela ezeren irakasle, niri gehiago konpartitzea gustatzen zaidala. Denok dakiguna elkartrukatzea.

Nolako ikastaroa proposatzen duzu?

Niri pena handia ematen dit belarrak ez ezagutzea, ez izendatzea, eta zertarako balio duten ez jakiteak. Nire ustez gure inguruan oso ezagunak diren 10 belar erakusten ditut, eta gero bakoitzak interesa badu garatuko du gehiago bere interesa, jakituria edo grina. Proposamena paseotxo bat ematea da. Aurkitzen dugunaren baitan ukendu bat egin, mokaduren bat jan edo simpleki bakoitzak



Nekane Martiarenarekin mendri buelta egin eta gero, jasotako dastatuko da.

dakiena konpartitu.

Nik dakidan gutxia erakusten saiatuko naiz eta era berean zerbait ikasten.

Zer nolako belarrak aurki ditzakegu gure inguruetan?

Agian ezagunena *Hirusta* edo *Berbena* da. Zikinkeria, mukiak, infekzioak kentzen edo garbitzen laguntzeko balio duena. Enplastoak da prestatzeko modu ezagunena, nahiz ukenduak edo olioak ere egin daitezkeen.

Jendeak gai honekiko interesa du, eurak izan baitira ikastaroa eskatu dutenak, erronka handia suposatzen du?

Horrelako gauzak beti dira erronka handiak ni ez naizela honetan profesionala,

afizionatua baizik. Ez dut nire burua honetan aditua kontsideratzen. Askotan ez nago ziur erantzuteko gai izango ote naizen. Urduri jartzen naiz, jende berria, herri ezeguzaguna...

Zer suposatzen du zuretzako honelako ikastaroa ematea?

Euskal kulturaren hain barnertua egon zen zerbait galtzea pena handia da niretzat beraz, hau berreskuratzea polita dela iruditzen zait. Ez hiltzen uztea. Gustukoa, beno, ez banuke atsegin ez nuke egingo, azkenean niretzako herri batera joatea, zer egingo dudana prestatzea lantzea, ikastaroa ematea... Lana suposatzen du. Baina afizioa ez dut ogibide bihurtu. •



SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

*** VEGASA ESKAINTZA!**
%15EKO BEHERAPENA ALTZARIETAN

ERAKUSLEIHOAREN ALDAKETAGATIK
%40AREN BEHERAPENA

Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

* (ezin da beste eskaintzekin bateratu)

